



Pablo
Pedro
Astarloa

1752-1806

BIDeGILEAK

Egilea:
Jose Mari Uriarte



PABLO PEDRO ASTARLOA

(1752-1806)

Pentsalaria eta hizkuntzalaria

Pablo Pedro Astarloa *Apología de la lengua bascongada* liburuagatik eza-gutzen dugu. Euskararen defentsan enkarguzko obra izan zen *Apología*; ez zen izan bere lan bakarra ezta onena ere, horra hor *Discursos filosóficos* liburua. Euskara lehenengo hizkuntza izateaz gain, ezin hobe zela ere frogatu nahi izan zuen.

Letra bakoitzaren esanahia aztertzen zuen teoria jarraitu zuen eta horren ondorioz etimologia gehiegizkoak eta erratuak egin zituen. Hala ere, gramatikaz oso azterketa zabala, zehatza eta sakona egin zuen. Beraz, zalantzarik gabe esan daiteke Pablo



Pablo Pedro Astarloaren erretratua. (XIX. mendean egin zen bisita-txartela argazkia). Hau da Astarloaren irudirik zaharrena

Pedro Astarloa hizkuntza sistematikoki eta zientifikoki aztertu zuen pentsalari eta ikertzaile bikaina izan zela. Zoritzarrez, erdaraz idazteak euskal literatoen artean baztertu egin du.

DURANGON JAIO ETA MARKINAN HAZI

Pablo Pedro Astarloa 1752ko ekainaren 29an jaio zen Durangon. Juan Bautista Astarloa Iturri eta Maria Angela Agirre Olabe senar-emazteen zazpi seme-alabetatik gazteena izan zen.

Pabloren familia maila onekoa zen. Familiako ondare handia eduki ez ezik, Juan Bautista aita Errege Kontseiluetako abokatua zen, Bizkaiko Jaurreriko Sindiko Prokuradore Nagusi izan zen 1738-1740 biurtekoan eta Durangoko alkate 1744 eta 1749an.

Baina Astarloa familiak itzelezko atseka-bea jasan zuen, Juan Bautista aita hil zenean 40 urterekin, ustekabean. Alarguna eta sei seme-alaba utzi zituen (bat umetan hil zen), zaharrena 13 urtekoa eta gazteena, Pablo hilabete bikoa.



Astarloaren jaiotetxea Durangoko Goienkalean

Pabloren amak Markinan hartu zuen babes, neba Pedro eta koinata Antonia Astarloaren Oruetakua etxean, 1754 baino lehenago. Mogel familia Debatik Markinara aldatu zen garaiarekin bat egin zuen.

Handik gutxira, 1755ean beste zoritxar bat gertatu zitzaion familiari: M^a Angelesen neba, Pedro Agirre, Errege Kontseiluetako abokatua, hil zen. Seme-alabarik ez zuenez, Angela arreba, Pablo Pedoren ama, izendatu zuen ondasunen oinordeko.

Camilo Villavasok Pabloren umearoko lehenengo urteen deskribapena egin zuen



Durango Andra Mari kalea eta elizaren ataria

haren biografian. Lan hori 1886ko Euskal Jaietako lehiaketara aurkeztu zuen Durangon gure biografiatuaren ohorez egin ziren eta. Honela dio, euskaraturik: «Mutiko lasaia zen, goxoa, barnekoia eta burutsua, jolas eta joko zaratatsuetarako zaletasunik gabea, etxekoi eta ama-zulo. Oso goiz esnatu zitzaizkion ikasteko gogoia eta kemena [...]».

Lehenengo letrak Markinan ikasi zituen. Han jasan zuen, Humboldt-ek dioenez, orduko ume guztien moduan, eskolako eraztunaren zigorra. Ikasleek galarazita zeukaten euskaraz berba egitea eskolan eta halakorik ez egiteko, maisuak aste ha-

sieran ume bati eraztun bat ematen zion. Ume horrek baten bati euskaraz egiten entzunez gero eraztuna hari ematen zion. Aste amaieran maisuak eraztuna edukitako guztiak zigortzen zituen.

Inazio Luis Astarloak, Pabloren iloba eta Markinako bikarioak, 1842an idatzi zuenez, Markinan hasi zen eskolan. Eskolumea zela idatzi zuen denak harritu zituen olerkia Frantzisko Xabier Munibe Peñafloidako kondearen ohoretan.

Oruetakua hutsik geratzen zihoan. Pabloren anai-arreba zaharrek bakoitzak bere bidea hartu zuen. Zaharrenak, gero maiorazkoen jabe izango zenak, legeak ikasten

Oruetakua etxea
Markinan



zituen. Francisca Logroñon moja sartu zen gazte-gazterik; Xabier Ramon eta Juan Bautista Valladolid eta Villagarciaiko jesuiten seminarioetan sartu ziren, eta azkenik Pedro, 1766an, Abandoko San Franciscoren komentura joan zen. Euskal idazle handia izan zen anaia hau. Besteak beste, *Urteco Domeca guztijetaraco verbal-di icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco catecismua* argitaratu zuen bi liburukitan.

Astarloatarrek 1766an *Matxinada* deituriko altxamendua oso gertu bizi izan zuten. Hurrengo urtean, beste egoera berezi batek tristuraz bete zuen Oruetakua etxea: Jesusen Lagundiko kide guztien Espainiatik kanporatzea. Pabloren bi anaiek, Xabier Ramon eta Juan Bautista Jesusen Lagundiko apaizgaiek, alde egin behar izan zuten Estatu Pontifizioetara.

ELIZ IKASKETAK LARRESORON

Pablo Pedro Astarloak Filosofia eta Teologia ikasi zituen Larresoroko seminarioan. Larresoroko *Le petit seminaire*, Jean Daguerre apaizak sortu zuen 1733an. Berehala zabaldu zen haren entzutea inguruko eskualdeetan, beraz bai Iparraldeko bai Hegoaldeko euskaldunak ibili ziren han ikasten. Domingo Jose Garat (1749-1833) Konbentzioko justizia ministroak ere Larresoron ikasi zuen.

Pablo sei neba-arrebatatik gazteenak eliz karrera hasi zuen familiak hala erabakita, hutsunerik egonez gero Durangon benefiziodun lehiari parte hartzeko eskubidea zeukalako.

Ordena txikietako klerigoa zen 1771n eta Jakobo Antxiak Xemeingo Andre Maria elizan sortutako kaperautza lortu zuen baita Sancho Lopez de Ugartek Ibarburuko San Jazinto ermitan, Xemeingo Atxondoa auzoan, sortutako kapilautza ere.

Urte horretan ere, Pablak aukera izan zuen Durango urira bildutako parrokien benefiziora lehiatzeko. Azterketara aurkeztu zen, baina ez zuen postua lortu.

Beste aukera bat 1774an etorri zen eta, frogak gaindituta, hutsik zegoen benefizio erdia eskuratu zuen.

Pablo Durangon jarri zen bizitzen Jose Antonio anaia eta familiarekin. Jose Antonio Markinako alkate izan zen aurreko urtean eta Durangon sindiko personero kargua hartu zuen. Pablo, ikasle oraindik, familiaren pentzutan edo kontura zegoen.

Garai horretan harremana sortu zen Pablo Astarloaren eta Josefa Angela Lizaso gaztearen artean. Ez zen harreman platonikoa izan, ezta noizbehinkakoa ere. Emaitzak agerikoak dira; Josefa Lizasok 1773ko urtarrilaren 27an umea izan zuen. Inazio Krisostomo izena jarri zioten eta gurasoak ezkongabeak zirela zehazten da bataio agirian. Ez zen izan bikotearen fruitu bakarra, geroago beste neska bat eduki baitzuten.

Pablok, ezkontza saihesteko, agiria sinatu eta dirua eskainita konpondu zuen egoera, ohi bezala. Apaiz izateko bidea librea zeukan, beraz. Hain zuzen, 1778an apaiztu zen. Eta 1782ko maiatzaren 5ean Pablo Tabirako Arrosarioko Amaren kapilau izendatu zuten.



Larresoroko apaiztegia. Hor Pablo Astarloak Filosofia eta Teologia ikasi zituen

Pablo hitzun ona izan zela esaten da. Badakigu pulpituan eroso jarduten zuela eta festa askotako predikari izan zela. Hitzaldiak euskaraz egiten zituen, zalantzarik gabe, Frai Pedro anaiak proposatu eta bidera-



Durangoko Artekalea



Durango 1778an. Bi mila biztanle inguru zituen

tutako gaiari jarraituta. Pabloren euskarak durangarren aurrean argi erakusten zuen amaren jatorria eta Markinako kutsua.

Gaitasuna ez ezik, elizbarrutiko gotzainak apaizei aldi-aldi ematen zien predikatzeko baimena ere behar zen. Baimen hori dela eta Durangoko bikarioarekin izan zituen ezadostasunaz jakinaren gainean izan zen apezpikua beti.

Pabloren bizitza nahiko arantzatsua izan zen. Arrazoi ezberdinengatik une txarrak igaro zituen. Jokabide ez oso ortodoxoa zeukan erlijio bizimoduari begira, eta Elizako agintarien aurrean Durangoko abadeen arteko ardi beltza bihurtu zen. Izan

ere, arazo, auzi edo beste istilu batzuk, foruduna zenez, Gotzaindegiko epaimahaiaren aurrean argitu behar zituen.

Txarto hasi zen Pablorentzat 1788 urtea, Juan Antonio Moglek Markinan bataiatu zuen ume baten aitatasuna berari egotzi zionez. Antonia Uzuriagak, ezkongabea, Antonio Valentin Uzuriagaren amak, Pablo jo zuen haurdunaldiaren eragilea. Kalagorriko auzitegiak amari eman zion arrazoia. 100 dukat eta haurra erditzeko gastuak ordaindu behar izan zizkion Pablock Antoniari.

Garai horretan, M^a Angela Agirre, Pabloren ama, makal zebilen eta 1789an hil zen 76 urterekin. Oruetakua hilobian lur



Mateo Aguiriano,
Calahorrako apezpikua

eman zioten Xemeingo Asuntzioko Andre Maria parrokian.

Kalagorri eta Kaltzadako gotzainaren elizbarrutian zegoen Durango. Gotzainak al-dian-aldian elizbarrutian bisita pastoralak egiten zituen. Bisita horietan parrokien eta ermiten egoera ikusteaz gain abadeekin ere hitz egiten zuen, aztertu egiten zituen eta elkarrizketa horien ondorioz apezpikuak konfesatzeko eta predikatze-ko baimenak ematen zizkien.


Frantzisko Mateo Aguiriano Kalagorriko gotzaina Durangora etorri zen 1791ko maiatzean. Abadeen informeak idatzi zituen gotzainaren idazkariak hauxe dio: «Don Pedro Pablo (sic) de Astarloa de 39 años; conducta desarreglada enteramente con especialidad en punto de incontinen-cia, y esto desde mozo, cuando estuvo S. I. en Durango no pudo presentarse por estar enfermo curándose sus miserias, más véase la razón puesta a puño y letra de S. I. en el borrador de esta visita».

Badakigu 1791n gaixo ibili zela denbora luzean. Pablok dokumentu batean esan zuenez gaixotasun gogorra jasan zuela eta arazoak zituztela medikuek menperatze-



Durangoko Andre Maria eliz ataria apaizekin

ko. 1793an Aguiriano gotzaina berriro etorri zen Bizkaira. Astarloa aipatu behar izan zuen Markinan zituen kapilautzen liburuak ez zizkiolako aurkeztu. Isunaren mehatxupearan 15 egunetan erakusteko agindua eman zion.



Tabirako San Pedro elizan zegoen Errosario kapera



Iparraldeko soldadu euskaldunak Konbentzioko gerran, Frantziaren alde borrokatu zuten

Arazoz arazo Astarloak aurrera jotzen zuen eta ez zen kikiltzeko erraza. Argi ikusi zen Frantziako Iraultza piztu eta urte batzuk geroago Espainia eta Frantzia arteko gerran, Konbentzioko gerraz ezaguna, sortu zenean (1793-1795). Pablo Pedro Astarloa Durango uriko tropen kapilau izendatu zuten eta Pablo gerrako kanpamenduetara joan zen herritarrei giza laguntza eta laguntza espirituala ematera. Eta giza laguntza esan dut gerra horretan apaiz bat baino gehiago borrokatu zelako armak eskuan, soldadu taldeen buru, borrokan hiltzeraino.

Frantsesak 1795eko uztailaren 12an sartu ziren Durangora. Egun batzuk geroago, abuztuaren 5ean, Gasteizen iragarri zuten bakea, Basileako bakea lez ezaguna. Ondoriorik hurrekoena egoera ekonomiko larria izan zen, gerrako gastu larriek aregotuta. 1798an errege dekretuak Amortizaziorako Errege Kutxa sortu zuen Koroaren zorrak kitatzeko asmoarekin. Dekretua berehala iragarri zen Durangon eta hainbat eliz ondare tasatu eta errematatu ziren, haien artean Astarloak zuzentzen zuen Tabirako Errosarioko kofradia- ren onibarrak.

Pablo, 1797ko abuztuan, preso dago Logroñon, Kalagorriko elizbarrutiko auzitegiaren ardurapean. Ez dago argi zergatik kartzelaratu zuen elizbarrutiko fiskalak, gehiegikeriak egin omen zituela bakarrik baitio: «[...] suponiéndole autor y delincuente de varios excesos [...]».

Egoera hori ez zen luzea izan, are gehiago, Xabier Inazio Astarloaren, bere ilobaren, ezkontzara joateko askatasuna edo aldi bateko baimena eskatu zuen, eta lortu ere. Hori bai, mila dukaten fidantzapean. Guk dakigunez 1797ko abendurako libre zegoen.



Euskararen ikertzaile

Astarloaren erretratua
(Imanol Larrinaga, Durangoko Arte eta Historia Museoa)

BESTE HIZKUNTZEKIN ALDERATUZ

Pablaren bizitzan arlo hau garrantzitsuena izan arren *Apología* argitaratu arte euskararen ikerketari buruzko aipamenak oso urriak dira. *Apologiá*ren hitzaurreko oharretan, Lorenzo Hervasen paperetan eta Humboldttek Euskal Herriko bidaiaz idatzitako gutunetan eta egunkarian baino ez dugu aurkitu.

Pablok berak argitu zigun euskara ikertze-ko grina non hasi zitzaion, argitaratutako lehenengo lanean, ezagunenean, *Apología de la lengua Bascongada...* liburuan (1803) «badirela hogeitau euskararen handiaz eta ederraz jabetu zela» idazten du.

Hori 1783an izan zen. Pablok 31 urte zituen eta benefizio erdiaren jabe zen Durangoko eliz kabildoan. Irakaslea ere bazen eta arlo ezberdinak irakasten zizkien unibertsitatara joan nahi zuten ikasleei.

Astarloak dio lau urtez euskara ikertu ondoren hasi zuela beste hizkuntza batzuen ikasketa konparatiboa. Latina, greziera, hebreera eta abar ikasiz, berriro euskarara itzultzeko. 206 aditz joko aurkitu zituen, alfabetoa eta silabarioa aztertu zituen eta ikasitako gainerako hizkuntzen aldean perfektua zela aurkitu zuen.

Pablok gorputz eta arima jardun zuen ikerketan. Gogor lan egin zuen eta bere jarduera itsu-itsu hori ezaguna zen auzo-



Astarloa ikertzen bere gelan. Olioa mihisean. Egilea: Isusi Renteria, 1936



koen artean. Ikertzaile eta filosofo gisa hartutako ospea berehala zabaldu zen uritik eta Jaurerrietik kanpora, eta horri esker orduko kultur arloan neurri bateko maila zeukaten pertsonekin izan zuen harremana.

Felix M^a de Samaniego fabularia izan zen bere lagunetako bat. Bera, 1786an Billbon data daukan gutun batean, Benito Maria Ansotegui Pabloren lagunari zuzentzen zaio: «Al bendito D. Pablo Pedro dígale V. que para una obra que pienso escribir de antigüedades antidiluvianas, me diga, puesto que él debe saberlo, como se llamaban en el paraíso terrenal los escribanos, sastres y zapateros».

Antonio María Letonak, Durangoko familia nagusi bateko semeak, gutun trukea egiten zuen Lorenzo Hervas eta Pandurorekin, Estatu Pontifizioetan atzerriratutako jesuita eta munduko hizkuntzen ikerlerik handienetakoarekin. 1799ko uztailaren 22an idatzi zion eta horren birtartez dakigu, euskararen gaineko datuak bilatzeko, Hervas harremanetan jarri zela Abadiñoko aberats ilustratua zen Jose Antonio Camposekin. Camposen eskutik Hervasek jakin zuen Astarloaren euskarari buruzko jardueraz.




Durangoko Andra Mariaren korua

Erromako Quirinal jauregiko Hervas liburuzainarekin jarri zen harremanetan Pablo eta harengandik jaso zituen duran-garrak Hervasek idatzita zituen munduko hizkuntzei buruzko bost tomo.

Hizkuntzaz, literaturaz eta kulturaz orokorrean ardura zeukaten beste pertsona askoren laguna izan zen. Horien artean zegoen Jose Agustín Ibáñez de la Rentería, Lekeitioko familia handi batekoa, politikaria eta literatur alegien egilea. Pablok, beste batzuekin batera, *aficionados del país* taldetxo bat sortu zuen, Carlos III.a erregea 1788ko abenduaren 14an hil ondoren, Gernikako Batzar Nagusietan Carlos IV.a errege berria aldarrikatzeko ekitaldietarako bertso oroigarri batzuk egin eta erregei ongi etorri egiteko. Bertsoetako bat latin, gaztelania eta euskaraz aurkeztu zuten. Euskarazkoa Pablo Pedro Astarloak egin zuen. Bertso horiek liburuxka batean argitaratu ziren 1789an.

HUMBOLDTEN BISITA

Wilhelm Humboldtek, prusiar jakintsuak, hainbat informazio eman ditu Pablaren



Astarloak poesia bat idatzi zuen euskaraz liburu honetan

lanaz. Euskara Europako hizkuntza komunitatean ezagutarazteko balio du gainera. Alexander, geografo eta naturalista ospetsuaren anaia zen Wilhelm Humboldt. Kultura eta Irakaskuntza Publikoko ministroa izan zenez, bere agintaldian sortu zen Berlingo Unibertsitatea.

Humboldt 1799an Espainian ibili zen. Ostera arin bat egin zuen Euskal Herrian interesatzen zitzaizkion lekuetan, Bergaran eta Gasteizen. Parisera itzuli zenean hizkuntzalaritzan jarraitu zuen lanean, euskarari aparteko arreta jarrita. 1801ean Euskal Herrira egin zuen bidaia zehatz-



Humboldt gaztea

-mehatz prestatu zuen. Humboldték oso argi zeukan bidaiaren helburu nagusia. Horretarako hemengo euskalariékin hitz egin behar zuen. Batez ere, «estaba prefe-

rentemente atento a un sacerdote de Durango, D. Pedro de Astarloa (sic). Cuánto es lo que debo a la amistad de este hombre docto y estimable, lo mostrará la sucesión de estas páginas. Aunque el único fruto de mi viaje fuera lo que aprendí de él, me tendría ya por bastante remunerado».

Humboldt maiatzaren 9an heldu zen Durangora lagun batekin eta 13a arte egon zen, bidai horretan Humboldték egingako egonaldirik luzeena.

Karolina emazteari idatzi zion eta paisaia aldakorrak eragindako sentipenen berri eman eta Durangoren gaineko lehenengo iritzia azaldu zion: «Bizkaiko herri txiki




Untzillatx eta Astxiki mendiak Urkiolako mendatetik

honetan bizi da kanpoko hizkuntzak ikasi eta euskara ikertu duen gizon bakarra. Eta hizkuntzarekiko interesari uko egin nahi ez badiot, nahitaez baliatu behar dut gizon horretaz».

Beste eskutitz batean dio Astarloak eskuizkribu bat zeukala inprentarako prest eta berak lan horren laburpena egin zuela. Gainera Humboldttek Euskal Herrian zehar egindako bidaiaren bi kronika egin zituen, halako batean Telesforo Aranzadik itzuli eta *RIE*Vek argitaratuak. Handik urte batzuetara, Humboldttek *Plan de lenguas o Gramática Bascongada en el dialecto vizcaíno* Pabloren lana goratu zuen, ahaztu gabe bere ustez zuzenak ez diren alderdiak.

DURANGOTIK MADRILERA

Konbentzioko gerraren ostean Durangoko eliz kabildoko eta udaleko diru kuxak hutsik zeuden. Apaizei ere errentak murriztu zitzaizkien. Haietako batzuk Durangotik joan egin ziren bide berriak eta itxaropen hobeen bila.



Errosario
kaperaren atea
Tabiran

Pablok 1802ko otsailaren bian Madrilera joateko gogoia agertu zuen agiri batean arrazoiak oso argi utzi gabe: «[...] a negocios e intereses de estimación y adelantamiento en mi carrera eclesiástica». Beste agiri batean arrazoiak apur bat gehiago zehaztu zituen: «Digo que mi parte ha resuelto pasar a la villa y corte de Madrid a hacer oposición a curatos de los hospitales de dicha villa y corte nuevamente erigidos [...]». Horrez gain, Pabloren lagunak izan ziren pauso hori ematera bultzatu zutenak, ikerketan aurrera egiteko bide berriak, bitarteko gehiago eta ikerlarie-



kin harremana izateko aukera eskaintzen ziolakoan. Humboldti jaramon eginez gero, inprentarako prest zeukan *Plan de Lenguas* lana. Dena dela, otsailaren 23an Durangotik irten zen Madrilerantz. Erreinuaren hiriburuan euskal kolonia handia zegoen, tartean kargu eta eragin handiko durangarrak.

Pablok alde egin zuela berehala zabaldu zen literatur munduan, Juan Antonio Moglek, Jose Vargas Ponceri Markinatik martxoan idatzitako gutunean ageri denez: «[...] D. Pablo de Astarloa [...] ha trabajado un nuevo Diccionario [...] Ha pasado a Madrid con todo lo trabajado. Son cuatro sus trabajos: *Diccionario del idioma*, *Diccionario Geográfico*, *Diccionario de Apellidos* y *Arte extenso*. Yo conozco mucho a este sujeto; es hábil, ha hecho mucho estudio del idioma. Nada quiero quitarle de su talento y dones; pero no quiero ocultarle a Vmd, no gustará a los críticos de buenas narices su genio sistemático; su pasión acalorada, y que olvidará a Larramendi. Es demasiado metafísico, y será un galimatías mucha parte de su escrito [...]».

Gutuna oso interesgarria da, Pablo hogeit urte lehenagotik egiten ari zen lanei buruz datu berriak ematen dituelako. Moglek aipatutako *Arte extenso* guk daukagun lehenengo eta azken berria da. Hiztegieta berba zerrendak besterik ez daude, gaztelaniazko ordezeko barik. Moglek, oster, ez du *Plan de Lenguas* aipatzen.

Euskararen apologista

EZTABAIDA GOGORREAN

Konbentzioko gerra zela eta, Godoyren Gobernuak euskal probintziei leporatu zien eraginkortasunik eza, borrokarako borondate falta eta euren betebeharra ez betetzea. Francisco Zamora Nafarroa eta Euskal Probintzietako armadaren auditore nagusiak gutun bidez Godoyri foruak kentzea aholkatu zion, hala dirua eta monarkiaren indarra gehitzeko.

Godoyk ez zuen egoki ikusten aurrez aurre aritzea euskal probintziekin eta nahia-go izan zuen zeharkako politika. Godoyk honako tesia zabaldu nahi izan zuen: euskaldunak ez zirela independenteak inoiz

izan, eta koroarekin zeukaten lotura ez zela borondatezko hitzarmena.

Asmo horrekin Historiako Errege Akademiak *Diccionario Geográfico-histórico de España. Por la Real Academia de la Historia. Sección I. Comprende el Reyno de Navarra, Señorío de Vizcaya, y provincias de Álava y Guipúzcoa.*

Egileek ez dute ezkututzen obraren filosofia: hiru euskal probintziak Gaztela eta Nafarroako erregeen ardurapean beti egon ziren. Joaquin Traggiak, Nafarroa atalaren egileak, Nafarroaren independentzia ukatu ezin zuenez euskararen jatorria erasotzen du: «Así en el siglo XII debió comenzar a tomar forma y consistencia la



Pablo Pedro Astarloaren erretratua

lengua empezada a introducir a mediados del siglo VIII para figurar sus naturales total independencia del extranjero». Lerro batzuk geroago, euskarari buruzko ohar bat egiten du: «y si se ayudara a su extinción, en menos de dos siglos sería un idioma muerto, como otros, de cuyas ruinas se formó él en los siglos oscuros».

Pablori, Madriler a heldu berria, euskal lagunak haserre agertu zitzaizkion *Diccionario* liburuko informazioagatik. Haiek Joaquin Traggiak euskararen gainean esandako astakeriei zehatz erantzuteko pertsonarik prestatuena Pablo jotzen zuten.

Madrilen parrokiarako oposizioak egitera joan zen Pablo, teoriar. Eta, bide batez, ikerketa filologikoak aurreratu eta ateratzeko. Herrikideek emandako konpromisoari aurre egin behar izan zion gero, nahiz eta *Apologíaren* hitzaurrean esaten duenez, ez zeukan astirik. Lagunek lagundu zioten eta hala Traggiak esandakoei erantzuteko bete-betean jarri zen idazten.

Durangon azken hogeit urtetan eginda zituen ikerketa eta eskuizkribu batzuen laguntzaz, urtebetean inprentarako prest eduki zuen Akademiaren *Diccionarioaren* erantzuna. 1803ko abuztuaren 13an *Diario de Madrid* egunkariak argitalpen berriaren berri eman zuen: «Apología de la Lengua Bascongada o ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen: en respuesta a los reparos propuestos en el *Diccionario Geográfico Histórico de España*, Tomo segundo, palabra Nabarra. Por D. Pablo Pedro de Astarloa, Presbítero. Madrid. Por D. Jerónimo Ortega. 1803».

Liburu honekin euskararen antzinatasuna eta bikaintasuna frogatu nahi ditu Astarloak. Euskara penintsulan zegoela zeltak eta fenizioak heldu baino lehenagotik

baieztatzen du. Bigarren zatian euskal hizkien esanahia eta euskal hilabeteen interpretazioa azaltzen ditu. Gainera, euskara lehen gizakiaren hizkuntza dela baieztatzen.

Apologiák eragin zituen erreakzioak kontrajarriak izan ziren. Mogeli, adibidez, ez zitzaion asko gustatu eta horrela adierazi zien Jose María Murgari eta Vargas Ponce. Mogelen kritika pribatuak aurreratu egiten digute Madrileko literatur eta politika giroetan zertan ziharduten.

Madrilgo egunkari eta aldizkarietan hasi ziren artikuluak agertzen. Lehenengoak *Diario de Madrid* eta *Efemérides de la Ilustración Española* izan ziren Astarloaren

lana aipatzeko eta goraipatzeko seudonimoz sinatuta idatzi ziren bi artikuluetan. *Mercurio de España* aldizkarian honako hau agertu zen: «[...] unos elogian a Astarloa con entusiasmo: otros sospechan en sus asertos alguna sofistería: los más esperan con impaciencia, a los discursos filosóficos en que promete mayores conocimientos sobre esta materia [...]».

Astarloaren mezuaren kontrakoak badi-rudi ez zirela ausartzen, zeharka baino, euskararen antzinatasunari trabak jartzen. Itxurazko lasaitasun hori guztiz hautsi zen *Efemérides de España* aldizkariak, 1804ko uztailaren 16an, iragarri zuenean Jose Antonio Conde, Historiako Akademiako kideak idatzitako liburua. Iragarkia




Apología liburuaren berria *Diario de Madrid* egunkarian

Apología liburuaren azala

Apologiáren lehenengo orrialdea

Reflexiones Filosóficas
liburuaren azala



honakoa zen: *Literatura: Censura crítica de la pretendida excelencia y antigüedades del bascuence: por D.J.A.C. Cura de Montuenga. Madrid. Imprenta Real. Año 1804.* «En ella se prueba que el bascuence no ha sido nunca lengua general de España, que no ha sido culta, y que carece de monumentos literarios; y se notan sus apologistas de pocos críticos.»

Montuengako apaizak, Jose Antonio Conderen ezizena, euskararen antzintasunaren kontra eraso zuen, baina liburuan, arrazoi eztabaidagarriak ez ezik,

A handwritten signature in dark ink, which reads 'Pablo Pedro de Astarloa'.

Astarloaren sinadura

euskaldunen hizkuntzaren mespretxua ere igartzen da.

Pablo Pedro Astarloak, *El Defensor de la Apología* ezizenarekin, berehala erantzun zion beste liburu batekin: *Reflexiones Filosóficas en defensa de la Apología de la Lengua Bascongada o Respuesta a la Censura Crítica del Cura de Montuenga.*

Gutunak bata bestearen atzean agertu ziren Madrileko egunkari eta aldizkarietan, euskara gai nagusi dela. Sinatzeko ezizena edo inzialak erabiltzeko ohitura dela eta, gaitza da eztabaidan dabiltzanak nortzuk diren jakitea, eta aldi berean erraza ironia gogorrera jotzea. Izan ere, helburua are-rioa konbentzitzea baino gehiago da barrerri uztea.

Pablok hasieran ez zuen parte hartu gutun lehian, bere izenarekin sinatuta ez behintzat, Gil Cano Moyaren artikulua luze bat irakurri arte. Astarloak *Mercurio de España* aldizkarian erantzun zion 1805eko martxoaren 15ean. Izenburuan argi dago gaia zein den: *Respuesta apologética a D. Gil Cano Moya sobre la posibilidad del sistema de la significación natural de letras, sílabas y voces, por Don Pablo Pedro de Astarloa, Presbítero.*

Discursos Filosóficos argitaratzeko azken ukituak egiten ari da Pablo. Baina lan horren argitaratzea ez zitzaion Astarloari erreza suertatu. Guztiz ezegokia zen eskuidatzi hori inprentako epaileari aurkeztea, Jose Antonio Conde Montuengako Abadearen lagun mina zelako. Horregatik Astarloa egoera hobearen zain zegoen argitaratzeko.

Joan Bautista Errok, Astarloaren lagunak, 1806an *Alfabeto de la lengua primitiva de España, y explicación de sus más antiguos monumentos de inscripciones y medallas* liburua argitaratu zuen. Beste gauzen artean Errok ere adierazten du eta frogatu nahi du Espainiako jatorrizko hizkuntza euskara izan zela. Ez dago esan beharrik lan hori ere ez zela Historiako Akademiako kideen gustukoa izan. Erantzuna berehala etorri zen Montuengako Abade honezkero ezagunaren eskutik.

EUSKAL ASTEA MADRILEN

Madrilgo literatur giroa gorien zegoenean lan bat argitaratu zen honako izenburuekin: *Semana Hispano-bascongada, la única de La Europa, y la más antigua del*



Semana Hispano-Bascongada liburuaren azala

orbe. Con dos suplementos de otros ciclos, y etimologías bascongadas. Primera parte. Dedicada a la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa. Por su autor D. Thomas de Sorreguieta, Presb. Con Privilegio Real. En Pamplona: por la viuda e hijos de Longa. Año de 1804.

Pablok lehendik ezagutzen zuen lan hori. *Apología* lanean emandako interpretazioarekin aurrez aurre zegoen. Eta bera izan zen, susmo guztien arabera, Sorreguietari erantzuna eman zion liburuaren egilea: *Carta de un bascongado al presbítero D. Tomás de Sorreguieta, advirtiéndole varias equivocaciones que ha padecido en su obra titulada Semana Hispano-Bascongada que acaba de publicar. Madrid 1804.*

Astarloaren heriotzaren ziurtagiria



Sorregieta ez zegoen prest bere pentsaerari uko egiteko eta beste lan bat argitaratu zuen hartutako kritiketatik babesteko eta berriz eraso egiteko. Erantzuna arerioen buru ideologikoari zuzendu zion, Pablo Pedro Astarloari: *Triunfo de la Semana Hispano-Bascongada y del bascuence, contra varios censores enmascarados. En tres cartas dirigidas a los Literatos españoles. Madrid 1805.*



Astarloaren heriotza *Diario de Madrid* egunkarian

PABLO PEDROREN HERIOTZA

Pablok bizitzeko behar-beharrezkoa baino ez zeukan, eta bere hurrekoek esan zuten pobrezian bizi izan zela. Osasun arazoek ez zuten atzera egin eta etengabe lanean eta kezkatuta ibiltzeak aurreratu egin zuen gero eta konponezinago ikusten zen larritasuna. 1802an Madrilen zegoela gaixorik dioten erreferentziak ditugu, eta 1804an kalenturekin ibili zela.

Madrilgo euskaldunek Pablori bultzatzen eta diruz laguntzen jarraitzen zuten. Nabarmenetako bat Frantzisko Egia Letona izan zen, Mariscal de Campo; beste bat, Simon Bernardo Zamakola eta Joan Antonio bere anaia, Joan Bautista Erro...

Diario de Madrid egunkarian 1806ko ekainaren 17an N.A.C. y S.-ren sinadurarekin gutun bat agertu zen. Astarloaren lanen azterketa txiki bat egin zuen, *Reflexiones* barruan zela. Astarloaren *Diccionario Bascongado* aipatu zuen eta bere egoera pertsonalaren berri eman.

N.A.C. y S.-k idatzi zuenean ez zekien gauzak aurrera egin eta Pablo hilda zegoela. *Diario de Madrid* egunkariko edi-



Madrilgo eliza honetan hilobiratu zuten Astarloaren gorpua

toreak jakinarazi zien irakurleei egunkari horretako ekainaren 17an sartu zuen ohar batean: «[...] ha muerto en esta Corte D. Pablo Pedro de Astarloa el día 2 del corriente a las 4 y 25 minutos de la tarde, de resultas de su enfermedad de retención de orina, que le ha tenido 8 meses postrado en cama. Este escritor, cuyo nombre respetará la posteridad, acabó sus días como un verdadero sabio, pobre, ignorado del favor, perseguido de la envidia, retirado de las gentes, y tranquilo de corazón. Deja al cuidado de dos amigos suyos la publicación de sus *Discursos filosóficos*, que se esperan con impaciencia».

Maiatzaren 31n, hiltzorian, Pablok azken borondatea azaldu zion Juan Antonio Zamakolari, probintziako eskribauari. Ez dakigu edukia, hurrengo egunean balio-gabetu zuen eta, Juan Antonio Zamako-

laren ilobarekin beste bat egiteko. Horretan bizitzako eta lanaren gaineko datu interesgarriak eman zituen baina, batez ere, Pablok *Discursos Filosóficos* lanaren gainean ziharduen, ahaztuta gera ez zedin eta argitaratuko zela ziurtatzeko.

Izan ere, testamentuan, zorrak dituela aitortu eta gero, esaten du *Discursos filosóficos sobre la primitiva lengua* idatzita duela eta Antonio Inazio Kortabarria, Gaztelako Konseilu Gorenaren Ministroaren eskuetan dagoela. Obra hori eta bere paper guztiak Juan Bautista Errori emateko eskatzen du, *Discursos filosóficos* obra argitaratzen bera arduratuko delako. Helburu hori lortzeko laguntzaile gisa Joan Antonio Zamakola izendatzen du. Astarloaren oinordekoa Maria Clara Ugartebeidea izango da baina berak argi uzten du bere lan literarioekin zerikusirik ez duela izan behar.

Pabloren gorpua Madrilgo San Martín elizan hilobiratu zuten, bere parrokian. Agiriaren alboan *Pe* sigla ageri da, pobre egoera adierazten duena.

DISCURSOS FILOSÓFICOS

Laster egoera politikoa nahastu zen. Carlos IV.a erregeak agintea Jose Bonaparteri uztea, frantziarren okupazioa eta ondorengo gertakariak: Fernando VII.aren agintaldia, hiru urteko liberala eta gerra karlistak zirela eta, Pabloren albazeen bizimodua zeharo baldintzatuta egon zen.



Discursos Filosóficos
eskuizkribuaren
lehenengo orrialdea

Juan Antonio Zamakola, frantziarrak 1813an erretiratzean, Frantziara erbesterratu behar izan zuen. Juan Bautista Erro prest zegoen Pabloren eskuidatziak Bizkaiko Jaurerriari emateko, baina 1820an, hiru urteko liberalean, Frantziara erbesterratu behar izan zuen, Fernando VII.a berriz errege jarri arte. Lehenengo gerra karlistan Carlos V.aren Ministro Unibertsala izan zen eta erbestera joan behar izan zuen berriro. Dena dela, bai bata bai bestea Pabloren *Discursos filosóficos* argitaratu barik hil ziren. Astarloaren paper guztiak Mateo, Joan Bautista Erroren semearen eskuetan gelditu ziren.

Mateo Erro 1857an harremanetan jarri zen Bizkaiko Aldundiarekin *Discursos filosóficos* argitaratzeko gaia tratatzeko baina, urrats geldo eta neketsuak egin ondoren, eskuizkribuak kaxoiren batean gordeta jarraitu zuen.

Pedro M^a Merladet Lasgoitiak Astarloaren *Apología de la lengua bascongada* berrargitaratu egin zuen 1882an. Aldundiaren baimena hartu zuen *Discursos filosóficos* argitaratzeko eta dirulaguntza, 180 ale erosita. Liburua, 784 orriko ale sendoa, *Discursos Filosóficos sobre la Lengua*

Primitiva o Gramática y Análisis Razonada de la Euskara o Bascuence izenburuarekin agertu zen 1883an.

Liburu hori da Pablo Astarloaren lan argitaraturik handiena, bere orrialdetan Astarloaren pentsaera osoa aurkezten da. Edukia era askotakoa da: ordurako ezagunak ziren hizkuntzaren antzinatasunaren gaineko teoriak, hizkuntza batek perfektua izateko behar dituen baldintzak eta gramatika luzea, euskal aditzaren azterketa zehatza nabarmentzen dela.

Hizkuntza naturalari buruzko ataletako batean Astarloak teoria bitxia ematen du, bere oharretan oinarrituta, gerora hizpide kate amaigabea ekarri duena eta, liburuaren barruan garrantzi txikia duen arren, gainerako edukia estaltzen duen geruza sortu duena. Haurretan mutikoen negarra *a* bokalarekin eta neskena *e* bokalarekin lotzeko teoriaren kontrako jarrerak ez du eragotzi oharron eragina gaur arte heltzea; horren indarra agerian geratu da euskal nomenklatorrean, emakume izen asko gizonezkoetatik amaierako *e*-ren birtartez bereizten baitira.

Azken ataletan lau taula sartu zituen aditzaren jokoaren eskemekin, liburuaren beste



Raíces vascas. Eskuizkribua Bizkaiko Foru Artxiboan

Discursos Filosóficos liburuaren azala

leku batzuetan ere zabal azaldutakoa. Horri esker, bere lanaren balioa estimatu egin da, euskal aditzaren lehenengo ikerketa sistematikoa da eta, Humboldttek 1817an aitortu eta gero Luis Mitxelena (1983) berretsi zuenez, deklinabide mugagabea jakinarazteko meritua hartzeaz gain.

Lan hau Astarloak Durangon egindako ikerketen ondorioa zen eta pentsatzen dugu Humboldttek aipatu zuen *Plan de lenguas* lan bera dela.

Bizkaiko Aldundian beste eskuizkribu batzuk gordetzen dira, amaitu gabeko ikerketenak dira edo haien zatiak: euskal berben bilduma bat *Diccionario basco-castellano* egiteko, euskarazko silaba erroen bilduma bat eta euskal errefrau batzuk.

Astarloaren monumentua Durangoko Ezkurdi plazan. Bere ohorez ospatu ziren Euskal Jaietan ipini zen, 1886an



Astarloaren monumentua Durangoko Montevideo kalean. 1949an Ezkurdiko plazatik kendu zuten bere ordez Frai Juan de Zumarragaren eskultura jartzeko



Bukatzeko, Mitxelenak esan zuen Astarloa euskararen apologista erdaraz izan zela, antzinako erara. Astarloak erabilitako etimologi sistemak kritika gogorrak jaso ditu. Sistema horrek, Europako beste hizkuntzetan erabilia ere, soinu edo letra bakoitzari esanahi gramatikal bat ematea zuen oinarri eta Julio Urquijok horri leporatu zion euskal hizkuntzaren gaineko ikerketak aurrera egin ez izana. Baina Astarloa apologista baino gehiago da; haren lanaz egindako azterketa berriek (aditza, deklinabidea, fonetika, ortografia eta abarren gainean) haren alderdi berritzaileak eta euskal hizkuntzalaritzara egin zuen ekarria nabarmendu dute, eta horrek justifikatzen du bere obraren ikerketan jarraitzeko.

Astarloari omenaldia 2002an, Errosarioko kaperan. Ezkerretik eskuinera: Itziar Laka, EHUko irakaslea; Anton Mari Aldekoa-Otalora, Gerediaga elkartearen lehendakaria; Miren Azkarate, Kultura sailburua; Pilar Ardanza, Durangoko alkatea; Jean Haritschelhar, Euskaltzaindiaren lehendakaria eta Ricardo Gómez, EHUko irakaslea



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Durangoko Arte eta Historia Museoari
- Durangoko Udal Artxiboari
- Calahorrako Elizbarrutiko Artxiboari
- Bizkaiko Foru Artxiboari
- Bizkaiko Artxibo Probintzialari
- Fernando de Vicenteri (azaleko irudiaren egilea)

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinaveitia, 18-pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 978-84-457-2755-3 (Lan osoarena)
978-84-457-2757-7

L.G.: VI-278/08

BIDCGILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco